



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA



PRENTSA OHARRA

## UMEEN EZOHIKO BATZARRAK UMEEK EUREN NORTASUNERAKO DAUKIEN ESKUBIDEA ALDARRIKATZEN DAU

- Bizkaiko Batzar Nagusiek atek zabaldu deutsez gaur osoko batzar “TXIKI” barri bati, Umeen Eskubideen Egun Unibersala baino egun batzuk lehenago.
- Lurraldeko zortzi ikastetxetako adinbakoek, Bizkaiko ume guztien ordezkari moduan, eta arduradun politikoek adierazpen bat sinatu dabe Gernikan, bardintasunezko herrialde bat eregiteko proposamenakaz; herrialde horretan nortasunerako eskubidea funtsezko printzipioa izango da.
- Umeen eskubideen alde behar egitea Bizkaiko umeen eta nerabeen “etorkizuna defendidutea” da.

(Gernikan, 2021eko zementiaren 18an). Bizkaiko Batzar Nagusiek UNICEFegaz alkarlanean antolatuta, Gernikako Batzar Etxeak umeei buruzko beste osoko batzar monografiko bat hartu dau eguen honetan. Sinbolismoz betetako ekitaldian, Umeen Eskubideen Egun Unibersalaren (azaroaren 20a) bezperatan, 12 eta 14 urte bitarteko umeen ordezkariak egon da, eta Bizkaiko ume eta nerabe guztien izenean, euren aldarrikapenak jasoten dituan adierazpena irakurri dabe.

Antzinako Andra Mari, Barrutialde Institutua, Balmaseda Institutua, Askartza Claret, San Antonio Ikastetxea, San Pelai Ikastetxea, Karmengo Ama eta San Felix Ikastola ikastetxetako ikasleek eztabaida publikoan parte hartzeko eskubidea erabili dabe Gernikan, osoko batzar “Txikia”-ren laugarren edizinoan lurraldeko ordezkari politikoakaz partekatu daben adierazpen baten bidez. Batzar berezi horretan, adinbakoek umeen “nortasunerako eskubidea” aldarrikatu dabe aurton. Izan be, printzipio hori jasota dago aurton 32. urteurrena ospatzen dauen Umeen Eskubideei buruzko Konbentzinoan.

Gernikara joan diran 64 gazteek (ikastetxe bakoitxetik zortzi, osasun arloko segurtasun errazoiengaitik) “estereotipoak eta etiketak apurtzea” eskatu dabe. Gurari berezi bat be eskatu dabe: euren askatasuna erabiltea “gure gustuengaitik, gure izaerarengaitik, gure janzkerarengaitik edo gure ohiturengaitik epaituak izateko bildurrik ez izateko”. Batzar Nagusiek eskini deutesen bozgorailutik, “garenak izateagaitik, garen modukoak sentiduteagaitik edo gustetan jakuna gusteteagaitik epaituko ez gaituen



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA



bardintasunezko gizartea guztion artean eregitera” dei egin dabe, eta hori euren nortasunaren aldeko alegatu bihurtu da. “Diskriminaziorik ezaren aldeko deia egiten dogu, nortasun bakotxa errespetata egongo dan aurreretxirik bako gizarte bat aldarrikatuz.” Amaitzeko, “alde batera ez geratzeko” eta euren eskubideak bermatzeko behar egiteko eskatu deutsee erakundeetako ordezkari.

Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakaria eta Isidro Elezgarai Euskadiko UNICEFeko presidentea izan dira umeen osoko bilkuraren buru, eta, hareekaz batera, Mahaiko kideak eta Bizkaiko Batzar Nagusietako talde guztietako eta UNICEFeko ordezkariak izan dira. Aldundiaren izenean, Sergio Murillo Gizarte Ekintzako diputatua egon da.

Umeen Eskubideen Egun Unibersalerako hiru egun falta diranean, Batzar Nagusietako lehendakariak, “ezbardina izanda be” persona bakotxaren nortasuna errespetetako idea azpimarratu gura izan dau. Txalotu egin dau lurraldeko ume guztien inplikazioa, irakasleen eta begirale espezializauen laguntzagaz egindako adierazpenari forma emoteko. Adierazpen hori Batzar Nagusien egoitzan egongo da ikusgai, eta “horren eukiak martxan jarteko konpromisoa hartzen dogu”. Esperientzia horri esker, Bizkaiko umeek “diskriminaziorik ezagaz erlazionautako balioak eta jarrerak” euren ganatu ditue, eta “nortasun bakotxa errespetaua izango dan aurreretxirik bako gizartea” aldarrikatu dabe.

Beste alde batetik, Isidro Elezgarai, UNICEF Euskal Herriko Batzordeko presidentea, “UNICEFen 75. urteurrena ospatzen dogun urte honetan, inoiz baino gehiago, umeek eta nerabeek esaten deuskuena entzun gura dogu” esan dau, erakundearen “Emon ahotsa zeure balioei” programan sartu dauen osoko batzarrean. “Agenda 2030 eta Garapen Jasangarriko Helburuak bide-orri moduan hartuta, UNICEFek gizarte justu, baketsu eta inklusiboak sustatzen jarraitu gura dau, ume eta nerabe bakotxaren nortasunerako eskubidea erregistrau, aitortu eta errespetau daiten, estereotipo eta diskriminazio barik; inor atzean itxi barik”, esan dau Elezgarai.

Ekitaldiak egun handien etiketea izan dau. “Agurragaz” eta Gernikako Arbolaren ondoan egindako familiako argazki bategaz hasi da. Euren aldarrikapenak ordezkari politikoen aurrean azaldu ostean, osoko batzarrak umeen adierazpena sinatu dau, eta Batzar Nagusietako lehendakariak esan dauenez, adierazpen hori Batzar Nagusien egoitzan erakutsiko da, “nerabe guztien” gurariak bete daitezcan saiatzeko.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA



NOTA DE PRENSA

## LA ASAMBLEA EXTRAORDINARIA DE LA INFANCIA REIVINDICA EL DERECHO A LA IDENTIDAD DE LOS NIÑOS Y LAS NIÑAS

- **El Parlamento de Bizkaia ha abierto hoy sus puertas a la celebración de un nuevo pleno “TXIKI”, días antes del Día Universal de los Derechos de la Infancia.**
- **Menores de ocho centros del territorio en representación de todos y todas los niños y niñas de Bizkaia, y responsables políticos, firman en Gernika una declaración con propuestas para construir un país igualitario en el que el derecho a la identidad sea un principio fundamental.**
- **Trabajar por los derechos de la infancia es “defender el futuro” clama la infancia y adolescencia de Bizkaia.**

(Gernika, a 18 de noviembre de 2021). La Casa de Juntas de Gernika ha acogido este jueves un nuevo pleno monográfico sobre la infancia organizado por las Juntas Generales de Bizkaia en colaboración con Unicef. Al acto, cargado de simbolismo, en vísperas del Día Universal de los Derechos de la Infancia (20 de noviembre), han acudido una representación de niños y niñas de edades comprendidas entre los 12 y los 14 años, que han leído una declaración con sus reivindicaciones en nombre de toda la infancia y adolescencia de Bizkaia.

Alumnos y alumnas de los centros escolares de Antzinako Andra Mari, Instituto Barrutialde, Instituto Balmaseda, Askartza Claret, San Antonio Ikastetxea, San Pelayo Ikastetxea, Nuestra Señora del Carmen y San Felix Ikastola, han hecho uso en Gernika de su derecho a la participación en el debate público a través de una declaración que han compartido con los representantes políticos del territorio en lo que ha sido la cuarta edición del pleno “Txiki”. En esta junta especial, las y los menores han reivindicado este año el “Derecho a la Identidad” de los niños y las niñas, un principio que está recogido en la Convención sobre los Derechos de la Infancia que este año celebra su 32 aniversario.

Los 64 jóvenes que han acudido a Gernika (ocho por centro por razones de seguridad sanitaria), han pedido desde el atril foral “romper con estereotipos y etiquetas”. Se han conjurado en pedir un deseo especial: ejercer su libertad “para no tener miedo a ser juzgados por nuestros gustos, nuestra manera de ser, por nuestra vestimenta o



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA



nuestros hábitos”. Han apelado, desde el altavoz que les ofrece el Parlamento de Bizkaia, “a construir entre todos y todas la sociedad igualitaria en la que no se nos juzgue por ser quienes somos, por sentirnos como somos o gustarnos quien nos gusta”, lo que se ha convertido en un alegato por su propia identidad. “Hacemos un llamamiento a la no discriminación, reivindicando una sociedad libre de prejuicios donde cada identidad esté respetada.” Para terminar, han pedido a los representantes institucionales “que no se queden de lado” y trabajen por garantizar sus derechos.

El pleno de los niños y las niñas ha sido presidido por la presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, y por el presidente de Unicef en el País Vasco, Isidro Elezgarai, que han estado acompañados por miembros de la Mesa y por representantes de todos los grupos junteros de la Cámara vizcaína y de Unicef. En representación del Gobierno foral ha acudido el diputado foral de Acción Social, Sergio Murillo.

A tres días de celebrarse el Día Universal de los Derechos de la Infancia, la presidenta de la Cámara, ha querido incidir en esa idea de respetar la identidad de cada persona “por diferente que sea”. Ha aplaudido la implicación de toda la infancia del territorio para dar forma a esta declaración, elaborada con el apoyo del profesorado y de monitores especializados, y que quedará expuesta en la sede de Juntas Generales y “cuyos contenidos nos comprometemos a tratar de poner en marcha”. La experiencia ha servido para que los niños y niñas de Bizkaia adquieran “valores y actitudes relacionados con la no discriminación” y reivindiquen “una sociedad libre de prejuicios donde cada identidad sea respetada”, ha destacado Otadui.

Por su parte, el presidente de UNICEF Comité País Vasco, Isidro Elezgarai, ha significado que “este año en que conmemoramos el 75 aniversario de UNICEF, queremos escuchar lo que los niños, niñas y adolescentes nos dicen más que nunca”, en un pleno que lo ha encuadrado en el programa de la entidad “Dale voz a tus valores”. “Con la Agenda 2030 y los Objetivos de Desarrollo Sostenible como hoja de ruta, desde UNICEF queremos continuar trabajando en promover sociedades justas, pacíficas e inclusivas, en las que el derecho a la identidad de cada niño, cada niña y cada adolescente esté registrado, reconocido y respetado, sin estereotipos ni discriminaciones; sin dejar a nadie atrás”, ha dicho Elezgarai.

El acto ha contado con la etiqueta de las grandes ocasiones. Ha comenzado con un “agurra” y una foto de familia junto al Árbol de Gernika. Tras explicar sus reivindicaciones ante los representantes políticos, el pleno ha concluido con la firma de la Declaración infantil, que como ha apuntado la presidenta de la Cámara lucirá en la sede de las Juntas Generales para intentar que los deseos de las y los “adolescentes completos” se cumplan.